



Guraso agurgarriok:

Dakizuenez, ikastetxe publikoetan DBH egiten ari diren ikasleei zuzendutako garraiorako banakako diru-laguntzen deialdiaren agindua azaldu da (EHAA 2019-12-17) 2019-2020 ikasturterako.

Baldintza orokorrak

-Ikasleek bete behar dituzten baldintzen artean ondorengo hauek gogorarazi nahi ditugu :

Ikastetxea 2 km edo gehiagotara egon behar du (1-2 DBH-ko ikasleak)

Ikastetxea 4 km edo gehiagotara egon behar du (3-4 DBH-ko ikasleak)

Etiket ikastetxera edo ikastetxetik gertuen dagoen geltokira dagoen tartearen arabera egingo da distantziaren kalkulua.

- Eragin-eremuaren arabera ikasleari dagokion ikastetxera joan beharra izatea.

Eskaeren aurkezpena

- INTERNETEZ: Eskabideak, ikaslearen legezko ordezkariak behar bezala beteta, modu elektronikoan www.euskadi.eus web-helbidean dagoen aplikazioa erabiliz aurkeztuko dira

- AURREZ AURRE: Eskabidea paperean egin nahi bada, eskabide-orria ikastetxeko idazkaritzan jaso daiteke (l. eranskina: eskabide-eredua)

Eskaera aurkezteko epea

Eskaera aurkezteko epea 2020ko urtarrilaren 27an bukatuko da.

Laguntza ordaintzea

Izendatu diren diru-laguntzen ordainketa aldi batean egingo da, deialdiari ebazpena eman ondoren. Ikasle onuradunek ikasketak egiten dituzten zentroetara bidaliko da diru-zenbateko osoa. Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzaren aurrean justifikatu beharko du zentroak ordaindu izana, ordezkariak emandako aginduei jarraituz.

Diru-laguntzen kontrola

Halaber, ikasle onuradunei eskatuko diete, 2020ko ekainaren 26a baino lehen, diru-laguntzaren zenbatekoa egunero edo astero ikastetxera joan beharrak sortu dituen gastuak ordaintzeko erabili dela justifikatu dezatela. Justifikazio-agiri horiek ondorengo hauek izango dira: txartelak, fakturak eta, ibilgailu partikularra erabiltzen bada, erantzukizunpeko adierazpena.

Zalantzak argitzeko, ikastetxeko web orria www.antigua-luberri.net, edo Hezkuntza saileko web orria www.euskadi.eus, kontsultatu daiteke, edo ikastetxeko Idazkaritzarekin harremanetan jarri.

Besterik gabe, agur bero bat.

ZUZENDARITZA

Donostian, 2020ko urtarrilaren 9an